

## » TELEGRAMA


Los Angelestik (AEB) zuzen-zuzenean Donostiako Mogambo aretora iritsiko da martxoaren 18an **Bestial Mouths** industrial electro-goth musika egiten duen taldea *STOP* Tartearen Teatroaren **Zergatik, Jamil?** ikusteko parada izango da Santurtzin martxoaren 17an: Mikel Martinez eta Eneko Sagardoy ditu protagonista hilketa ulergaitz batekin hasten den obra honek *STOP Hitz adina mintzo*, hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloak Gaskoierari eskainiko dio arreta martxoaren 17an. Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean da zita 19:00etan *STOP*

## » DISKOA

## Beste ikuspegi bat



Joxi Ubeda



### Kaiolatik ihes

ERASO!

Bonberenea Ekintzak, 2016

Zarauzko Eraso! taldearen ibilbidea aldakorra izan da, taldeak hainbat gorabehera izan ditu. *Kaiolatik ihes* haien seigarren disko luzea da, eta mugarrria izango da taldea izaten ari den bilakaeran. Ibilbide baten amaiera baino gehiago, hasiera.

Aurretik rock gogorra jo izan dute, eta disko berriak erakusten duenez haien doinuak jadanik ez dira hain bortitzak, apur bat finagoak dira, baina kemen eta grina handiz jotzen dute, beti bezala. Azken batean, eta nahiz eta zenbait kantuk rock gogor ukitua izan, beren rock gogorraren kaiolatik atera dira, beste ikuspegi bati erreparatzeko, beste aire bat arnasteko.

*da ezer gertatzen*), "atzeratu begiratzen baduzu eta gauean negar egiten baduzu ez dituzu izarrak ikusiko" (*Gazte izan nintzen*), "bizirik irauteko programaturik gaude eta gidoi gabeko film baten protagonista izan nahi dut" (*Kaiolatik ihes*).

Eraso! taldeko kideak –Sergio Ruiz Gonzalez-Txabarri, Iñigo Beitia Mantrola, Ibai Castro Azpiri eta eta Nestor Urdanpilleta Egaña– eta Karlos Osinaga arduratu dira ekoizpenaz; Osinagak bere egin ditu grabazioa eta nahasketak Tolosako Bonberenea estudioan, eta Jonan Ordorikak masterizazioa Azkarateko Mamia estudioan. Denen artean doinu trinkoa gauzatu dute, potoloa, ozen entzuteko modukoa.

Aurrera begiratu behar dela aldarrikatzen dute, eta horretarako lan egin behar dela eta borrokatu: "Aurkitu ditut bizitzako eremuak ukaldi sendoak jaso ostean" (*Ezina ekinez eginak*), "zenbait egin genezake beste aldera begiratu ordez" (*Ez*

Taldeak 20 urte bete ditu eta denbora honetan hainbat grabazio kaleratu ditu. *Guztiaren arabera* (1996) eta *Gaua* (1997) maketak, eta disko hauek: *Eranztunik gabe* (1999), *Oraina eta geroa* (2001), *Grisez bustitako egunak* (2003), *Kontra* (2005), *Ez gara inoiz hilko* (2012) eta *Kaiolatik ihes* (2016).

Lan berria aurkezteko egingo dituzten jendaurreko emanaldiak ikusgarriak izango dira. Martxoaren 19an Tolosako Bonberenean joko dute, martxoaren 23an Donostiako Gasteszenan, apirilaren 7an Bilboko Kafe Antzokian, apirilaren 23an Iruñean, apirilaren 30ean Zarauzko Putzuzulon, ekainaren 3an Oñatiko Gaztelekuan eta ekainaren 11n Hondarribiko Psilocybenean. ■

